

Nélida Zaitegi, lehendakaria
Mari Tere Ojanguren
Xabier Aizpurua
Juan Carlos Jauregui
Javier Laiseca
Ismael Redondo
Antxon Rodríguez
Eva Blanco, Idazkari teknikoa

17/04 IRIZPENA

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2017ko martxoaren 30eko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: **funts publikoekin sostengatutako Euskal Autonomia Erkidegoko**

ikastetxeetan Haur eta Lehen Hezkuntzako unibertsitate graduetako practicum, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan irakasle aritzeko gaitzen duen Masterra egiteari buruzko dekretu proiektuari buruzkoa.

I.- AURREKARIAK

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Legeak bere 100. artikuluan dio legean arautako irakaskuntzak emateko beharrezkoa dela dagozkion titulazio akademikoak edukitzea, eta Jaurlaritzak irakasgai bakoitzerako ezartzen duen prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa izatea.

ECI/3854/2007 eta ECI/3857/2007 Ministerio aginduek diote Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Irakaskuntzako ikasketa plangintzek bere baitan hartuko dutela practicum bat. Praktikaldi hori presentziala izango da, unibertsitateko irakasle batek edo Haur nahiz Lehen Hezkuntzako maisu-maistrek gainbegiratu dute (betiere praktiketako tutore izateko akreditatuta badaude) eta Hezkuntzako Administrazioen eta Unibertsitateen arteko hitzarmenen bidez praktiketako prestakuntza zentro gisa akreditatutako zentroetan garatuko da.

Azaroaren 8ko 1834/2008 Errege Dekretuak bere 9. artikuluan dio Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Erregimen Bereziko Irakaskuntzetan irakasle aritzeko derrigorrez eduki behar dela prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa akreditatzen duen Masterraren titulu ofiziala.

Unibertsitateko irakaskuntza ofizialak antolatzen dituen urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuan jasotzen dira Unibertsitateko Master tituluak diseinatzeko egitura eta jarraibideak. Dekretu hori abenduaren 27ko ECI/3858/2007 Ministerio aginduak garatu zuen (zeina abenduaren 16ko EDU/3498/2011 Aginduak aldatu baitzuen).

Azkenik, abenduaren 22ko 236/2015 eta 237/2015 Dekretuek Oinarrizko Hezkuntzako eta Haur Hezkuntzako curriculumak ezartzen dute. Dekretu horiek finkatzen dute zeintzuk diren Euskal Hezkuntza Sistemako irakasleek lortu beharreko gaitasun profilak, zeintzuen bidez baldintza onenetan beteko baitituzte beren funtzio eta zereginak.

II.- EDUKIA

Dekretu proiektu honek 14 artikulua, xedapen indargabetzaile bat, azken xedapen bat eta bi eranskin ditu.

1. artikulua Dekretuaren xedea ezartzen du, eta 2.ak aplikazio esparrua.

3. artikulua ezartzen ditu practicumeko ikasleen eskubideak eta betebeharrak.

4. artikulua adierazten du zeintzuk diren praktiketako zentro gisa akreditatzeko bete beharreko baldintzak, eta 5. artikulua, bestalde, zeintzuk diren praktiketako tutore gisa akreditatzeko bete beharreko baldintzak, tutoreen funtzioak, eta akreditazioa indargabetzeko arrazoiak.

6. artikulua ezartzen ditu praktiketako koordinatzailearen funtzioak eta berau izendatzeko prozedura.

7. artikulua ikastetxeetan garatu beharreko practicumaren garapenari buruzkoa da, eta 8.ak aipatzen ditu Unibertsitateek eta Hezkuntza Sailak praktikaldiaren garapenean egin beharreko ekintzak.

10. artikulua arautzen du praktiketako prestakuntza zentro izendatzeko prozedura.

11. artikulua Hezkuntzako Berrikuntza Zuzendaritza izendatzen du prozedura hori kudeatzeko organo eskudun. 12. artikulua prozeduraren ebazpenari buruzkoa da.

13. artikulua praktiken jarraipena egiteko batzordea arautzen du.

14. artikulua aipatzen ditu ikastetxeen errekonozimendua eta tutoretza eta koordinazio arduradunak.

Xedapen indargabetzaileak bertan behera uzten du 2010eko irailaren 26ko Agindua.

Azken xedapenak dio noiz sartuko den indarrean agindua.

I eta II. eranskinetan ikastetxeen eta praktiketako tutoreen eskaera ereduak jaso dira, hurrenez hurren.

III. – BALORAZIOAK ETA PROPOSAMENAK

Master tituluetakoko practicumaren garapena arautzen duen Agindu proiektuari dagokionez, Euskadiko Eskola Kontseiluak 20/08 irizpenean eskatu zuen arau bat argitaratu zedila Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasle graduko practicuma ere arautzeko, 2009/10eko ikasturte hartan hasi baitzen ikasketa plan berria.

Kontseiluaren iritziz, oso baikorra da arau hau argitaratu izana, nahiz eta denbora asko pasa den eta nahiz eta practicum hori azken urteotan berdin gauzatu den, uste baitu beharrezkoa zela berau arautuko zuen arau orokor bat izatea.

Dekretu proiektuaren helburua da ikastetxeetan practicuma egiteko baldintza orokorrak arautzea, unibertsitatei baitagokie diseinu orokorra egitea.

Kontseiluak garrantzitsutzat jotzen dituen hiru alderditan zentratzen du bere analisia, eta jarraian ohar puntualak egiten ditu arauaren artikuluei buruz:

a) Akreditazio eskakizunak eta prestakuntza

5. artikulua arautzen ditu praktiketako ikasleen tutore izango diren irakasleek bete beharreko baldintzak. 2010eko uztailaren 26ko Aginduak ez bezala, proiektu honek ez du baldintzatzat jartzen karrerako funtzionario izatea, eta irakasleak izan beharreko esperientzia urteak seitik hiru urtera murriztu dira. Gainera, irizpide berri bat sartu da: ikastetxeko zuzendaritzaren aldeko txostena izatea. Txosten hori egiteko kontuan hartu beharreko lehentasunezko irizpide batzuk dira esperientzia izatea ikasleen tutoretzan eta eginda edukitzea esparru horretarako prestakuntza jarduerak.

Kontseiluaren iritziz, irakasle berrien prestakuntzarako oso garrantzitsua da ikasleen ikaskuntza sustatzeko eta beren gaitasun guztiak garatzeko behar diren irakaskuntza-gaitasunak barneratzea, curriculumaren garapenerako Dekretuek zehazten duten irakasleen profil profesionaletan jasotzen den bezala. Gaitasun horiek zioen azalpenean aipatzen dira, baina gero ez dira islatzen artikuluetan.

Horregatik, Kontseiluak proposatzen du tutore izango diren irakasleak hautatzean kontuan har dadila beren irakaskuntza-gaitasuna, horrela ikaskuntza lantzeko ikasleen gaitasunak garatuz eta funtsezko gaitasun emozional eta sozialak baliatuz eta, bide horretatik, baita ere ikaskuntzarako eta hezkuntza komunitatearen ongizaterako beharrezkoa den giroa sortzeko ikasgelan.

Gainera, Kontseiluaren iritziz beharrezkoa da ikastaroak eskaintzea praktiketako tutore izango direnentzat (coaching, mentoring,...), eta bestelako prestakuntza jarduerak antolatzea, ikastetxeetan garatutako jardunbide egokiak kontuan hartuta.

7. artikulua hauxe dio **bere** 5. atalean: *ikastetxeek prestakuntza egokia emango die praktiketan dauden ikasleei, eta prestakuntza horrek bere baitan hartuko ditu metodologia berritzaileak, informazio eta komunikazio teknologiak, euskararen kalitatezko erabilera eta atzerriko hizkuntzen erabilera.*

Arauren zioen azalpenean azpimarratzen da garrantzitsua dela euskal hezkuntza sistemako irakasleei eskatzen zaien gaitasun profila eta profil horrek bat etorri behar duela curriculumen dekretuetan ezarritakoarekin. Halere, eskatzen diren profil berriak ez dira kontuan hartu artikulua idaztean.

Kontseiluaren iritziz, artikulua honetan erreferentzia egin dakieke profil horren barruan seinalatutako gaitasunei eta komenigarria litzateke xehetasun handiagoz definitzea.

Idazkera hau proposatzen dugu:

“Praktiketako tutoreek prestakuntza egokia emango diete praktiketako ikasleei, behar duten gaitasun-maila lor dezaten baldintza onenetan betetzeko beren funtzio eta zeregin guztiak. Prestakuntza horrek bere baitan hartuko ditu ondoko hauei buruzko ezagutzak: metodologia berritzaileak, ikaskuntzari buruzko paradigma eguneratuak, adimen artifiziala, teknologiak... eta ikaskuntza bermatzeko beharrezkoak izan daitezkeen beste hainbat”.

Bestalde, egungo idazkeran “euskararen kalitatezko erabilerari” egiten zaion erreferentzia zehaztugabea da, eta bi hizkuntza ofizialak aipatu behar lirateke edo bestela ikastetxeko komunikazio-hizkuntzak.

b) Practicuma garatzeari buruzko ekintzak

Kontseiluak uste du ez daudela argi definituta artikuluetan aipatzen diren dokumentuak, hots, practicumari buruzkoak. Horregatik, aldaketa hauek proposatzen ditugu:

- **8.1 b) artikulua** dio unibertsitateen ardura dela practicumeko ikasgaiak planifikatzea, eta hezkuntza arloko sail eskudunarekin batera, praktikak egiteko epea zehaztea.

Hezkuntza Sailak eta EHUK hezkuntzako graduako tituluen praktikak egiteko indarrean duten hitzarmenak dio unibertsitatearena dela **practicumaren plan orokorra** diseinatzearen ardura, akreditatutako ikastetxeekin lankidetzan. Elkarlan horren barruan adostuko dira egutegia eta ordutegia.

Kontseiluak proposatzen du b) atal horretan erreferentzia egitea practicumaren plan orokorra egiteari, zeinak bere baitan hartuko baititu, besteak beste, praktiketako ikasleen egutegia eta ordutegia.

- **c) atalak** dio unibertsitateen ardura dela **prestakuntza-proiektua** egin eta ematea, eta proiektu horretara bilduko direla erdietsi beharreko gaitasunak, helburuak, ebaluazio irizpideak eta tutorearen funtzioen definizioa.

Ulertzen dugu tutorearen funtzioak dagoeneko definituta daudela 4. artikuluan; bestalde, ez zaigu egokia iruditzen definizio hori unibertsitatearen esku bakarrik uztea.

- Azkenik, hirugarren zehaztasun-maila bat dago **71.1 artikuluan** ("**bakarkako programa**") jasota dagoena. Programa hori koordinaturik egiten da irakaskuntzan aritzeko gaitzen duten unibertsitate titulazioetako irakasleen eta ikastetxe bakoitzeko praktiketako koordinatzailearen artean.

Horregatik, Kontseiluak proposatzen du aipamen bat eranstea c) atalaren amaieran edo d) atal modura, adierazteko prestakuntza-proiektua bakarkako programa baten barruan zehaztuko dela eta programa hori koordinatzailearekin batera egingo dela. Gainera, koordinatzailearen funtzioen artean -6. artikuluan jasotzen direnak- sartu beharko litzateke.

- Azkenik, **10.2 b) artikulua** dio ikastetxeak txosten bat egin behar duela praktiketako zentro akreditatu izateko eskaera egiten duenean, eta txosten horrek hainbat alderdi barne hartu behar dituela, hala nola, **lan plan bat**, non, besteak beste, aipatuko baitira practicumeko ikasleekin garatu beharreko ekintzak.

Ulertzen dugu ikasleekin garatu behar diren ekintza horiek direla unibertsitatearekin adostu behar direnak, beraz, ez da egokia alderdi hori sartzea.

c) Parte-hartzaileentzako pizgarriak

Dekretu proiektuak hiru errekonozimendu mota desberdin ezartzen ditu 14. Artikuluan. Ikastetxeei *Praktiketan dauden ikasleak prestatzeko ikastetxe* deitzen zaie, baina ez da inolako sari edo baliabide zuzkidurarik planteatzen zeregin horretarako.

Parte hartzen duten irakasleei, koordinatzaileei eta tutoreei meritu profesional modura aitortuko zaie egiten duten ekarpena irakaskuntza publikoko funtzioan sartzean, meritu, lehiaketa eta deialdietan eta sustapen profesionalean; zehazki, baliokidetzat bat finkatu da praktika horien eta prestakuntza orduen artean. Ezartzen da eginiko lana aitortuko zaiela, lan horren ebaluazioa positiboa bada.

Ebaluazio horri buruzko erreferentzia bakarra dago 8.1 e) artikuluan, zehazki, unibertsitatearen funtzioen artean, non esaten den unibertsitateak txosten bat egin behar duela, irakasle tutoreak eginiko lanak balorazio positiboa edo negatiboa duen ebazteko.

Ulertzen dugu gehiago garatu eta zehaztu behar direla ebaluazioari buruzko alderdi guztiak: irizpideak, parte hartuko duten agenteak... Ez dirudi egokia bakarrik

unibertsitatearen esku uztea, beste agente batzuk ere kontuan hartu beharko liratekeelako, hala nola ikasleak, koordinatzaileak, e.a.

Bestalde, kontuan hartu behar lirateke, baita ere practicumen desberdintasunak, kreditu kopuruari eta ikastetxean egindako orduei dagokienean. Hala, UPV/EHUko ikasketa planeko haur eta lehen hezkuntzako graduatan practicum dago 2., 3. eta 4. mailatan, baina bakoitzari esleitutako ordu kopurua desberdina da. Beraz, ikastetxeetako tutoreen dedikazioa desberdina izango da, hartzen dituzten ikasleen arabera.

Horregatik, Kontseiluak uste du gehiago garatu behar direla ebaluazioari buruzko alderdi horiek, Dekretu honetan ez bada beste arau batean, eta adierazi beharko litzateke araudi bidez garatuko direla.

Azkenik, Gradu unibertsitate ikasketetara sartzeko probetan epaimahaikide izateko lehentasuna izateari dagokionez, errepikatu egingo dugu Kontseiluak aurrez aipatutako irizpenean esan zuena: *emandako zerbitzuagatik ordaindutako ekintza da eta Kontseiluaren ustez ez da egokia beste jarduera batentzako pizgarri modura agertzea.*

Ondorio gisa, Kontseiluak uste du praktiketako tutore izateko lanak dedikazio espezifiko behar duela prozesuan parte hartzen duten ikastetxe eta irakasleen aldetik, hots, denbora hori kendu beharko litzateke ohiko zuzendaritza edo irakaskuntza funtzioetatik.


Horregatik, Euskadiko Eskola Kontseiluak uste du beharrezkoa dela aurrekontu espezifiko koherente bat gaitzea, bat etorriko litzatekeena Practicumak dauzkan espektatiba altuekin. Aurrekontu horrek aukera eman beharko lioke ikastetxeari positiboki ebaluatutako tutoretza-funtzioak garatzeagatik ordainsariak edo pizgarriak emateko. Horrela bakarrik eskatu ahal izango zaie kalitatezko jarduera zorrotza irakasle berrien prestakuntzan inplikaturako pertsona guztiei.

Ohar puntualak:

Kontseiluak aldaketa formal hauek proposatzen ditu:

- **1. artikulua:** gaztelaniazko bertsioan, “orden” hitza kendu eta “decreto” jartzea.
- **2. artikulua:** gaztelaniazko bertsioan, “centro educativo *designado* como de formación en prácticas” esapidea kendu eta “centro educativo **reconocido** como centro de formación en prácticas” jartzea, zehatzago izateko.
- **3.2 artikulua** a) gaztelaniazko bertsioan “durante el periodo de la duración de las prácticas” dioen zatia kentzea, enuntziatuan jasota baitago.
- **3.3. artikulua:**

- a): atal honetan ikastetxeko araudia betetzeari buruzko erreferentzia bat erantsi daiteke.
- d): atal honetan bi alderdi desberdin daude jasota. Uste dugu bigarren zatia badaukala behar adinako izaera e) atal berri batean jasotzeko. “Uneoro errespetua agertzea prestakuntza ematen duen ikastetxeari, bertako profesionalei eta ikasleei eta beren familiei”.
- **4. artikulua:** ez zaigu egokia iruditzen programak adibide gisa aipatzea. Horregatik proposatzen dugu eranskin batean zerrenda osoa sartzea edo bestela argibide batzuetan jasoko direla adieraztea, e.a.
- **6. artikulua**
 - d) atala ezabatzea, e) atalean eduki bera jasotzen baita.
 - h): zein bilera diren zehaztea. Ulertzen dugu praktiketako tutoreek unibertsitateko praktika arduradunekin eginiko bilerak direla, baina zehaztu egin behar da.
- **7. artikulua**
 - 3: proposatzen dugu gaztelaniazko bertsioan “profesorado de las titulaciones” erreferentzia kentzea eta “**los referentes universitarios**” jartzea, gainerako artikuluetan erabiltzen den bezala.
 - 5: ez zaigu egokia iruditzen *ikastetxeek* eta tutoreek “zainduko dute” aipua; ezin dira maila berean jarri ikastetxea eta tutorea. Gainera, artikulua osoan erreferentzia egin behar litzaioke koordinatzaileari edo zuzendaritza taldeari.
- **8. artikulua**
 - b): practicumeko ikasgaien plangintza egitea: practicumean ez dago ikasgairik.
 - c): irakasle tutorearen funtzioak jasota daude dekretuan bertan, beraz, ez zaigu egokia iruditzen atal honetan ere erreferentzia egitea.



- **13. artikulua:** gaztelaniazko bertsioan titulua aldatzea, eta hau jartzea: “Comisión de seguimiento de las prácticas en los centros sostenidos con fondos públicos”.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbon, 2017ko martxoaren 31n

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

LEHENDAKARIA

Sin.: NÉLIDA ZAITEGI DE MIGUEL

HEZKUNTZA SAILBURU ANDREA